

# OLLARANA UR ETA LUR

*Urak dakarrena  
urak daroa  
lurrak emandakoa  
lurrean gelditzen da,  
eta gu hemen  
beti gu hemen*

*Jose Anjel Irigarai*

Zortzi dira Iruñerria eskualdean kokatuta dagoen Ollaran udalerrria osatzen duten kontzejuak: Anotz, Arteta, Egillor-Beasoain, Iltzarbe, Olo, Saldise, Senosiain eta Ultzurrun. Arakil eta Udarbe errekek zeharkatzen duten paraje honetako urek, betidanik garrantzi handia izan dute Ollaranaren historia eta garapenean. Harana inguratzen duten erliebe malkartsuek ingurune natural desberdinak gordetzen dituzte bere baitan; pagadi, artadi eta hariztiak, zereal lurrekin nahasten dira collage perfektua osatuz. Ingurune natural honen altzo eta gailurretan, historiaren makina bat lekuko aurkitu daitezke no-nahi: elizak, gazteluak, gatzagak, ermitak, iturburuak, ikuztegiak, eraikin zibilak, erroten aurriak e.a. Segidan deskribatzen diren lau ibilaldiak burutuz gero, horiek guztiak ezagutzeko parada izango dugu.

## OLLARANGO ITZULIA

**ZAILTASUNA:** ERTAINA  
**LUZERA:** 20 km  
**IRAUPENA:** 5 ordu 15 min  
**DESNIBELA:** 495 m


Guztiz balizaturik dagoen (PR-Na 170) ibilbide zirkular honek, Olloko haranean dauden zortzi herri lotzen ditu. Iruñatik gertu, Andia, Satrustegi eta Saldiseko mendilerroen artean babestuta dagoen haran honetan, leku eta zoko ikusgarriak aurkituko ditugu, sasoiaren arabera, bere lurretan ematen diren koloreen sinfoniak eskainiko digun kontraste paregabeaz gozatzeko. Zelai, baso, erreka, zintzur, zereal lur, hormatzar, ur-jauzi, gatzagak, iturburu, herrixkak eta beste hamaika paisaia eskura.

Ibilbidea zirkularra denez, bertako edozein herritatik abia gaitezke, baina guk haranari izena ematen dion Olo herria aukeratuko dugu abiapuntu gisa. Herriko plazatik aterako gara gertu ikusiko dugun Senosiain herrirantz zuzenduz. Bide-seinale zuri eta horiek erreka aldera jaitsi eta xendatik segituz errepidera, herriaren beheko aldera iritsiko gara. Herrian sartu aurretik,



egurrezko hesola batek Artetara zuzentzen den bidea erakutsiko digu. Zereal lurren artean zabaltzen den pista eroso eta zabaletik herrira iritsiko gara eta bertatik, Artetako iturburu aldera joko dugu. Lehen bidegurutzean, gatzagetara doan bidea aukeratuko dugu eskuinekoa utziz (gero elkartzen dira biak). Altuera zertxobait galdu eta erraz iritsiko gara gaur egun nahiko abandonaturik dauden gatzagen ondora.

Gatzagak zeharkatu, aldapa txiki bat igo eta berehala bat egingo dugu bide ba-



### TESTU ETA ARGAZKIAK



**Mikel Arrizabalaga**  
(Donostia-Eibar, 1957)

Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zerikusia duten makina bat artikulu eta kolaborazio egin ditu. Euskal Herriko mendietan ez ezik, Pirinioak, Alpeak, Atlas eta Himalaiako mendietan ibilia da.

litzatuarekin. Zubi bat gurutzatu, Udarbe erreka gainditu eta xenda segituz Artetako iturburuaren ondoan dagoen aparkalera iritsiko gara. Puntu honetan, bide balizatu utzi eta Artazulgo zintzuraren murgilduko gara. Udarbe errekek urek zizelkatutako kareharrizko haitzarte honetan kilometro erdiko ibilbidea burutuko dugu zintzuraren hondoraino heltzeko, ur-jauzi ederraren azpira hain zuzen ere. Paraje ederra bezain ikusgarria.

**Sasoiaren arabera, koloreen sinfoniak eskainiko digun kontraste paregabeaz gozatzeko dugu**



Gaztelutik Txurregirako bidean

Etorritako bidetik atzera egingo dugu aparkalekuraino eta, bertan bide-seinale zuri eta horiek erakutsiko digute hartu beharreko norabidea. Metro gutxi batzuk igo eta, bide lau eta eroso segituko dugu lurpean doan ubidearen ondotik Ultzurrun herrira iristeko, aurrez "El Pontarrón" izenez ezagutzen den zubi estutik pasako garelarik. Herriaren gunera jaitsi gabe, errepidean zehar beteko dugu hurrengo tartea, bidea berriro basoan sartzen dela ikusi arte. Saldise mendilerroaren magalean marrazten den zidor honetatik, izen bera duen herrira iritsiko gara eta hau atzean utzi ostean, baso mistoan murgilduko gara lurreko pista zabala segituz. Garañoko gazteluaren aurriren mendean dagoen lepora iristean, basoa atzean laga eta Egillorrera jaitsiko gara. Herria zeharkatu

eta gertu, koltza lurren artean ikusiko dugun Beasoain herriraino abiatuko gara.

Arakil ibaiaren ondora jaitsi eta, honen paraleloan doan bide ederretik Anotzeko zubira ailegatuko gara. Errepidea gurutzatu eta egurrezko hesolak seinalatuko digun norabidean aurrera egingo dugu. Ibilbidean dagoen aldaparik gogorrena hemen aurkituko dugu, artadian murgildu eta 200 metroko desnibela gaindituko dugu xenda estua segituz. Basotik ateratzean, Iltzarbe herria gure mendean ikusiko dugu eta bertaraino jaitsi gabe, pista zabala segituko dugu gorako bidean. Egurrezko hesola batek pista utzi eta basoan murgiltzen den xenda bat hartzera gonbidatuko gaitu. Satrustegi mendilerroaren magalean marrazten den xenda eder hau segituz Ollora iritsiko gara, abiapuntura hain zuzen ere.

## ORARREGIKO GAZTELUA

**ZAILTASUNA:** ERTAINA  
**LUZERA:** 11,8 km  
**IRAUPENA:** 3 ordu 15 min  
**DESNIBELA:** 853 m

Olo haranean dagoen Iltzarbe herrian eman go diogu hasiera gaurko ibilaldi honi. Herriaren goiko aldetik ateratzen den pista zabalean zehar abiatuko gara PR-NA 170 ibilbideari (Ollarango itzulia) dagozkion bide-seinale zuri eta horiek erakusten diguten norabidean. Lehen partean porlana, baina berehala legarrezko lurzorua zapalduz egingo dugu aurrera. Gure ezkerrean IltzARBeko kanposantua utzi eta Ollaran ibarraren ikuspegi zabalaz gozatu, baso mediterraneoan murgilduko gara. Olo herrirantz zuzentzen den PR-NA 170a



Gazteluko tontorrean Nafar Erresumaren Orarregiko gazteluaren aurriak

gure ezkerrera utzi eta pista zabalak berehala gerturatuko gaitu Txurregiko piramidearen beheko aldera. Bere magalean zehar hedatzen den bidetik erraz igoko dugu Gaztelu alderako aldapa. Bideak ekialderantz biratu eta ezkerrera ateratzen den bidea utzita diagonalean jarraituko dugu tontorretik gertu dagoen zabaldi txiki batera iristeko. Xenda nabarmen batek tontorrera igotzen lagunduko digu.

Gailurrean, harlanduz egindako eremu zirkular bat aurkituko dugu, antzinako gotorlekuaren omenaldi-dorretzarraren oinarria. Nafarroako Erresumaren hiriburua defenditzeko kokagune estrategikoa baitzen gailur hau, Arakil eta Larraun ibaiek bat egin eta gero, bertako urek Oskia haitzartea ireki eta moldatu zuteneko. Gaztelu hau XIII. mendearen amaierakoa da, Orarregi, Olloriegi edo Ollaregi izenez aipatua, Txurregi eta Gaztelu mendiek konpartitzen duten lepo zabalaren izenean jatorria dutelarik. Pasabide hau Napoleonen tropen maiz erabili

ohi zuten Oskia haitzartean gerta zitezkeen balizko segadak saihesteko. Gaztelua izateaz gain, talaia eder honetatik izango dugun ikuspegi zabala izugarria da: Iruñerria, Aralar, Andia, Euskal Pirinioak eta abar luze bat. Ezin ase, begiak beti gose.

---

### **Gailurrean, harlanduz egindako eremu zirkular bat aurkituko dugu**

---

Aurrez aurre dugun Txurregiko gandorreta begira jarriko gara eta, bi mendiak lotzen dituen lepo aldera jaisten hasiko gara oso nabarmena den bidetik. Berehala, baltsa baten ondora iritsiko gara eta hau atzean utzita, denbora gutxi beharko dugu bi mugarriek adierazten duten Ollariegi lepoa zapaltzeko. Alanbrezko hesiaren parean belarrezko alfombra zapalduz Txurregi aldera igotzen

hasiko gara. Hasieran izango dugun malda berehala gogortuko da eta, pareta bertikala itxura duen azken zatiak arnasa berotu eta izerdi tantak aterako dizkigu. Gandorrera iristean, eskuin aldera jo eta 50 bat metro ibiliz gailurra aurkituko dugu. Mendi tontor honetatik, Ollarana ibarreko ikuspegi zabala izango dugu. Zereal lur artean herri txikiak han hemen sakabanaturik eta Andiaren barren dagoen ur geruzaren irteera naturala den Artetako iturburua ere.

Abiapuntura itzultzeko tenorean, tontorretik berriro atzera egin eta beste isurialdetik Ollora aldera jaisten hasiko gara. Hasieran, diagonalean hedatzen den xenda ez da batere nabarmena eta zinta zuri batzuek lagunduko digute bide zuzena aukeratzen. Ezpel artean sartzean bidea erosoagoa gertatuko zaigu eta basotik ateratzean gertu ikusiko dugun baltsa aldera jaitsiko gara. 180°ko bira egin eta, baltsaren ezker aldetik hasieran ikusgaitz den zi-



gertu, ur-jauzi, horma bertikal eta trokartzek osatutako zirku ikusgarri bat. Ibilbidea zir-kularra denez, bertako edozein lekutatik abia gaitzke, baina guk Arteta herria aukeratuko dugu abiapuntu gisa. Bidearen zatirik handiena PR-Na 170 (Ollarana) bide balizatutik beteko dugu marka zuri eta horiek erakusten diguten norabidean. Herriko plazatik aterako gara eta, zereal lurren artean zabalitzen den pista eroso eta zabaletik aurrera egingo dugu. Artetako iturburu aldera joko dugu. Lehen bidegurutzean, gatzagetara doan bidea auke-ratuko dugu eskuinekoa utziz (gero elkartzan dira biak). Altuera zertxobait galdu eta erraz iritsiko gara gaur egun nahikoa abandonaturik dauden gatzagen ondora. Antzinetik ezaguna den gatzaga hau artisau moduan ustiatu izan da. Ez dugu ahaztu behar, garai batean elika-gaiak kontserbatzeko gatza baliabide bakarra zela eta behar horrek jarduera garrantzitsua bihurtu zuen gatzagetan lan egitea.

## Zintzur honek duen edertasunak, makina bat sakan-jaitsiera zale erakartzen du

Gatzagak zeharkatu, aldapa txiki bat igo eta berehala bat egingo dugu bide balizatuarekin. Zubi bat gurutzatu, Udarbe erreka gaingitu eta xenda segituz Artetako iturburuaren ondoan dagoen aparkalekura iritsiko gara. Hemen urak Udarbe erreka isurtzeaz gain, energia hidroelektrikoa ekoizteko eta Iruñerria urez hornitzeko erabiltzen dira. Iturburuaren sorgunetik ateratzen den ur emaria baldintza klimatikoaren arabera aldatuz joaten da.

Puntu honetan, bide balizatu utzi eta Artazulgo zintzuraren murgilduko gara. Udarbe erreka urek zizelkatutako kareharritzko haitzarte honetan kilometro erdiko ibilbidea buru-

Artazulgo ur-jauzian arroila jaitsiera egiten



dorra hartu eta gero, bidea zabaldu egingo da. Txurregiren magalean zehar zabalitzen den bide honetatik erraz galduko dugu altuera eta, Ollor herriaren parera iristean pista zabala hartu eta bertatik jaisten hasiko gara. Herrira iritsi aurretik, ikusiko ditugun PR-NA 170aren marka zuri eta horiek Iltzarbe aldera eramango gaituzte. Ollor herriraino jaitea erabakiz gero, bi herriak lotzen dituen pista zabaletik heldu gaitzke abiapuntura.

## ARTAZULGO ZINTZURRA

**ZAILTASUNA:** ERRAZA

**LUZERA:** 7,7 km

**IRAUPENA:** 2 ordu 20 min

**DESNIBELA:** 259 m

Olloko harana (Ollarana) inguratzen duten mendi ederrez gain, bere altzoan gordetzen du Nafarroak duen iturbururik garrantzitsuenetako bat, Artetakoa hain zuzen ere. Eta



Garañoko gazteluaren hondarrak

tuko dugu zintzuraren hondoraino heltzeko, ur-jauzi ederraren azpira hain zuzen ere. Paraje ederra bezain ikusgarria. Zintzur honek duen edertasunak, makina bat sakan-jaitsiera zale erakartzen du eta bere neurrian bada ere, Guara edota Pirinioetan aurkitu daitezkeen ur-jauziekiko antzekotasun handia du. Ondo

higatutako zintzurra dauden jauzi, igarobide hestu eta abarrez gozatzeko paisaia paregabea. Artazul zintzurra kareharrizko haitzarte bat da, Goñiko gaineratik heldu den Udarbe erreka urek zizelkatutakoa; erreka, gero, Artetako Iturburuko urei lotzen zaie. Inguru malkartsua da eta haritzak dira nagusi; toki ospeletan pa-

gadi txikiak ageri dira, eta harkaitzetan, arteak. Beste espezie batzuk inguruko freskuraz eta hezetasunaz baliatzen dira, esate baterako, astigarrak, lizarrak, hurritzak eta sahatsak.

Etorritako bidetik atzera egingo dugu eta, ibaiaren paraleloan aparkalekuraino itzuli eta bertan ikusiko ditugun bide-seinale zuri eta horiek erakutsiko digute hartu beharreko norabidea. Metro gutxi batzuk igo eta bide lau eta eroso segituko dugu lurpean doan ubidearen ondotik Ultzurrun herrira iristeko, aurrez "El Pontarrón" izenez ezaguna den zubi estutik pasako garelarik. Herriaren gunera jaitsi eta Artetara zuzentzen pista zabaletik aurrera egingo dugu. Erraz amaituko dugu ibilbide labur, baina eder hau.

## GARAÑOKO GAZTELUA

**ZAILTASUNA: ERRAZA**

**LUZERA: 11,1 km**

**IRAUPENA: 3 ordu 30 min**

**DESNIBELA: 815 m**

Egillorren hasiera emango diogun ibilaldi zirkular honetan, bi mendi gailur igoko ditugu, Mortxe eta Saldise hain zuzen ere. Eta abia-



puntura heldu aurretik, Garañoko gaztelua izan zenaren hondarrak bisitatzeko aukera izango dugu. Bidearen zati handi batean lagun izango ditugun GR-220aren (Iruñako Arroaren itzulua) marka zurigorriek erakutsiko digute hartu beharreko norabidea. Errepidean zehar edo honen ezkerretik errekaraino jaitsi eta, berriro errepidera ateratzen den xendatik barrena abiatuko gara. Gertu dugun Arteta-Egillor ur-araztegiaren ondora iritsiko gara berehala. Hormigoizko bideak, porlanezko bihurtu eta kaseta baten ondora eramango gaitu, San Cristobal ermitara igotzeko erabiltzen zen lurrezko bidearen hasierara hain zuzen ere. Laster, harizti trinko batean murgilduko gara eta, aurrerago, baltsa batera jaitsi aurretik ermita izan zenaren hondarrak inguratuko ditugu.

Ur-baltsa biren artean igaro eta bide balizatutik, haritz bikainen artean, erraz egingo dugu aurrera. Egillor eta Saldiseko lurak banatzen dituzten alanbrezko hesia gainditu eta Saldisetik datorren harrizko pistatik gorantz joko dugu. Hirugarren ur-baltsaren ondora iristean, bide balizatua utzi eta aurrez aurre duzun Mortxe aldera zuzenean igotzen hasiko gara. Alanbrezko hesiaren ondora heltzean, hau pasa eta

ipuru artean berehala ikusiko dugu Mortxeren gandorra. Tontorrera heltzean, sekulako ikuspegia zabalduko zaigu: Nafarroako Erdi Aldeko mendiak gertu ikusiko ditugu, baita Urbasa eta Andiaiko goi-lautaden irudia. Eta beherantz begiratuz gero, Iruñako Arroaren eta Ollaranaren panoramika bikainak.

### Gaztelu izeneko muinoan zegoen gaztelua, 591 metroko garaieran

Gandorretik lepora jaitsi eta Saldise tontorra zapalduko dugu segidan. Puntu honetatik izen bera duen herrira jaitsiko gara, xendarik gabe eta malda pikoari aurre eginez. Neketsua oso. Herrian sartu gabe, berehala ikusiko ditugu Ollaraneko PR-NA 170 marka zuri eta horiak eta horiek segituz, Garañoko gazteluaren ondora iritsiko gara. Ez da erraza gaztelua izan zenaren ondora igotzeko xenda edo bide egokia aurkitzea, alanbre-hesi pare bat gaindu behar da eta.

Gaztelu izeneko muinoan zegoen gaztelua, 591 metroko garaieran, Saldise herritik

900 bat metrora. Gaztelu Txiki izenez ere ezaguna da; izena, alde batetik, gazteluaren oroitzapenaren lekukoa da, eta, bestetik, haraneko beste Gaztelu izeneko mendi batekin lotuta dago, Orarregi gazteluari dagokionarekin, hain zuzen. Muinoa, nahiz eta nahiko laua izan goialdea, bereizi egiten da inguruko lurretatik, eta kono moztu baten itxura hartzen du. Malkartsua da, baina amildegirik gabekoa; iparraldeko eta ekialdeko maldak Arakil ibaian bukatzen dira, 200 bat metro beherago. Ipar-ekialdean, berriz, Udarbe ibaia eta berak eginiko igarobidea ikusten dira.

Gaztelua Astorga-Bordele erromatar gartzadaren ondoan zegoen, bide nagusi baten bazterrean, beraz. Horretaz gain, gertuko bidegurutze batean, Olo, Goñi eta Andia-Ur-basarako bidea hasten zen. Egillor-Saldise bidea, berriz, hegoaldean dagoen mendatetik zihoan. Bide horiek abelbide ere bazirela du agiriaren batek. Iparraldera, Oskia mendi-zintzurak mugatzen du harana, eta Orarregi gazteluaren mendia ere han dago. Goialdetik, Iruñerria ere ikusten da. Gaztelua bisitatu eta lepora itzuliko gara gertu dagoen Egillor herrira itzultzeko.

Txurregitik Satrustegiko mendilerroa

